



ctb

bizkaiko garraio partzuergoa
consorcio de transportes de bizkaia

PRENTSA-OHARRA

BGP-K MARTXOAREN 8AN MERKATURATUKO DITU ALDI BATERAKO TXARTEL MULTIMODAL BERRIAK

- **Gaur abiaraziko da titulu berriak ezagutzera emateko informazio-kanpaina. Tituluok sinpleagoak izango dira, eta balioko dute Metro Bilbao, Euskotren eta Bilboko tranbian bidaiatzeko, eta Bizkaian erroldatuta dauden 26 urtetik beherakoen kasuan, Bizkaibusen ere erabili ahal izango dira.**
- **BGPko Kontseilu Nagusiak bilera egin du gaur Bilboko egoitzan, eta onetsi du Urdulizko Udalarekiko lankidetzaren hitzarmena. Horren bidez, udalak 400.000 euro jasoko ditu, udalerrria zeharkatzen duen zatian metroa lurperatu izanaren ondorioz sortutako azalera urbanizatzeko.**

Bilbo, 2017ko otsailaren 28a

Bizkaiko Garraio Partzuergoak martxoaren 8an merkaturatuko ditu aldi baterako txartel multimodal berriak. BGPk informazio-kanpaina bat abiarazi du gaur titulu berriak ezagutzera emateko, hain zuzen, erabiltzaileak ohitu daitezzen 3. linea martxan jartzeak ekarriko dituen titulu eta tarifa berrietara. Tituluok sinpleagoak izango dira, eta balioko dute Metro Bilbao, Euskotren eta Bilboko tranbian bidaiatzeko, eta Bizkaian erroldatuta dauden 26 urtetik beherakoen kasuan, Bizkaibusen ere erabili ahal izango dira.

Hurrengo egunotan, BGPk erabiltzaileentzako 90.000 informazio-liburuxka banatuko ditu, aipatutako garraiobide nagusiei buruzkoak. Hala, begi-kolpe batez ezagutu ahalko dituzte aldi baterako txartel multimodal berriek eskaintzen dituzten aukera anitzak, eta aukeratu ahal izango dute zein interesatzen gehien beren Barik pertsonalizatueta kargatzeko.

Halaber, horien inguruko informazioa zabalduko dute Metro Bilbao, Euskotren, Bizkaibus eta Renfeko ohiko arreta-puntuek, bai eta BGPren webguneak (www.ctb.eus) eta Bezeroen Arretarako Bulegoak ere (946 855 000 edo barikctb@cotrabi.eus). Langile gehiago jarriko dira kanpaina horren harira. Era berean, komunikabideetan eta metro, tren zein tranbiaren nasetako mupietan islatuko da kanpaina.

Bizkaiko Garraio Partzuergoko (BGPko) Kontseilu Nagusiak abenduan onetsi zuen aldi baterako titulu multimodal berriak eta tarifa onuragarriagoak indarrean sartzeari, apirilean Metro Bilbaoko 3. linea martxan jarriko dutelako. Linea berriak Bizkaia egitaratu, eta behin betiko kenduko ditu hiru lineen arteko ibilgailu-aldaketa. Alde Zaharreko lehenengo geltoki intermodala izango da eta, nolakotasun horri esker, parametro berekin



ctb

bizkaiko garraio partzuergoa
consorcio de transportes de bizkaia

funtzionatuko dute 1., 2. eta 3. lineek.

Zeintzuk dira txartel multimodal berriak?

Martxoaren 8tik aurrera, erabiltzaileek Barik pertsonalizatuetan kargatu ahal izango dituzte gehien komeni zaien aldi baterako txartel multimodala; izan ere, titulu horien bi bertsio egongo dira: bat jendearentzat oro har eta beste bat gazteentzat. Gainera, bertsio bakoitzean ere bi aukera izango dira: bata bidaiak mugatuak egiteko eta bestea, ostera, bidaiak mugagabeak izateko.

Bada, hauek dira aldi baterako titulu multimodal berriak: BIDAI 50, BIDAI 70 eta GAZTE 70, bidaiak mugatuen kasuan; eta BIDAI ORO eta GAZTE ORO, bidaiak mugagabeen kasuan. Hortaz, desagertuko dira aldi baterako txartel pertsonal edo jabe-txartel guztiak, bai eta BGPko garraio bide bakarrekiko Gazte txartelak ere, atxiki diren garraio bideetatik (EuskoTren eta Bizkaibusetik; Metro Bilbaoko urteko Gazte txartela, ordea, mantenduko da).

Non erabili ahalko dira txartel multimodal berriak?

Gizartearentzat oro har direnek –BIDAI 50, BIDAI 70 eta BIDAI ORO– balioko dute Metro Bilbao, EuskoTren, Bilboko tranbia eta Larreinetako funikularrean bidaiatzeko. Gazteentzat direnak –GAZTE 70 eta GAZTE ORO–, berriz, aurreko garraio bideetan ez ezik, Bizkaibuseko linea guztietan ere erabili ahalko dira.

Txartel multimodal berrien abantaila nagusia honako hau da: orain arte, aldi baterako titulu guztiek –Metro Bilbaoren hileko txartela, Bizkaibuseko Gazte txartela, EuskoTreneko hileko txartela eta Metro Bilbaoren Super 50– garraio bide bakarrean erabili zitezkeen; gaur egun, aldiz, titulu berriarekin erabiltzaileek atxikitako garraio bide guztietan bidaiatu ahalko dute erakunde-arte lankidetzaren erabaki eta esfortzu handiari esker. Ondorioz, Bizkaiko garraio publikoa erabiltzen duten herritarrei erosotasun handiagoa eta zerbitzu hobea eskainiko zaie.

BGPko gaurko Kontseilu Nagusia

Beste ildo batean, BGPko Kontseilu Nagusiak bilera egin du gaur eguerdian Bilboko egoitzan, eta onetsi du Urdulizko Udalarekiko lankidetzaren hitzarmena. Horren bidez, udalak 400.000 euro jasoko ditu, udalerrira zeharkatzen duen zatian metroa lurperatu izanaren ondorioz sortutako azalera urbanizatzeko; hots, Bilbo Metropoliko Trenbidea elizatean lurperatzeko obraren eragina izan duten urbanizazioa, zoladura, espaloiak, hiri-altzariak eta zerbitzuak birjartzeko.

Bestalde, BGPko Kontseilu Nagusiak onetsi du Burgosko Udalaren proposamena,



ctb

bizkaiko garraio partzuergoa
consorcio de transportes de bizkaia

Burgosko garraiobide publikoan kontakturik gabeko txartela ezartzeko lankidetzari buruzkoa. Proposamena bi aldeen arteko lankidetzaz hitzarmen baten bidez gauzatu da. Horren arabera, BGP Burgosko Udaleko Mugikortasun eta Garraio Zerbitzuarekin elkarlanean arituko da, bertan Barik ereduak ezartze aldera: eskema, ezaugarriak, garapenak, teknologia, zehaztapenak etab.

Ez da administrazio batek lankidetzan aritzeko eskatzen duen lehen aldia, BGPren iaiotasuna (edo *know-how*) ildo horretan ezartzeko. Bestalde, Bizkaiko Garraio Partzuergoak lankidetzaz erabakia izenpetu zuen 2015eko abenduan Centro Tecnológico en Logística Integral de Cantabria fundazioarekin, kontakturik gabeko txartela garatu eta ezartze aldera Kantabriako Autonomia Erkidegoko garraio publikoan.